



URUMEAKO Kronika

2017/02/08



 PDF

ASTIGARRAGA Otsailak 8



 PDF

HERNANI Otsailak 8

[albisteak](#)//UDALA PRENTSA-OHARRA

Sagardotegietara joateko 'txotx busa', aurten ere

Asteazkenean jarri zuten martxan zerbitzua, eta aurreko urtean bezalaxe, debaldekoa izango da. Herriko 13 sagardotegietan izango du geltokia.

ASTIGARRAGA

2017/02/04 00:00 Larunbata

Aurreko urteko esperientziari segika, aurten ere Txotx busa, sagardotegietara joateko garraio zerbitzua eskaintzea erabaki du Astigarragako Udalak. Behemendi landa garapenerako elkartearekin elkarlanean jarri zuten zerbitzua martxan asteazkenean. Autobusa Donostia ibilbidetik aterako da aurten, Hernaniko norantzako autobus geltokiaren atzean. Zerbitzuaren helburua da, Udalaren hitzetan, «kotxearen erabilpen arduratsua sustatzea».

Autobus-zerbitzua, apirilaren 29ra arte

Asteazken honetan hasi dira zerbitzua eskaintzen, eta apirilaren 29ra arte luzatuko da. Astelehenetik larunbatera jarriko da zerbitzua, ordutegi desberdinekin. Igandeetan, ez da zerbitzurik emango. Astelehenetik ostegunera gaueko zerbitzua besterik ez da izango, iluntzeko 20:15etatik gaueko 00:00etara. Ostiraletan, aldiz, zertxobait luzeagoa izango da: iluntzeko 20:30etatik gaueko 00:30etara. Ordutegia guztiz aldatuko da larunbatetan; orduan, hiru txandatan banatuko da autobusa erabili


ahal izateko aukera: eguerdietan, 13:30etatik 15:00etara ibiliko da txotx busa; arratsaldez, 16:30etatik 18:00etara; eta gauez, iluntzeko 20:30etatik gaueko 00:30etara.

Txotx busa, 13 sagardotegietara

2016 urteko arrakasta ikusita, 13 sagardotegietara hurbilduko da aurten Udalak eta Behemendik antolatutako Txotx busa. Hain zuzen dira: Sarasola, Larrarte, Etxeberria, Oyarbide, Artola, Gurutzeta, Petritegi, Alorrenea, Astarbe, Irigoien, Bereziartua, Mina eta Lizeaga. Udalak azaldu du sagardotegi batzuek ez dutela zerbitzua kontratatu, izan ere, «ez dute beharrezkoa ikusten, herrigunetik gertu daudelako».



Txiokatu




IRUZKINAK

Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*



reCAPTCHA erronka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzaile](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)

Bidali

Aurreikusi



GEHIGARRI BEREZIA



ASTIGARRAGA

Otsailak 8



HERNANI

Otsailak 8

Eskelak

HERNANI

ANTONIO
DOMINGUEZ REBOLLO



ANTONIO
DOMINGUEZ REBOLLO



Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

Puri-Purian

Sutea izan zen ... (1)

*Zarkumendegira dijoan bidegorria,
... (1)*

Karabel (1)

Arcadi Oliveresek hitzaldia ... (2)

Artearekiko egitura falta ... (1)

*Hernani-Gernika atzeratuta,
Landareren ... (6)*

Bi urteko haurrak ... (1)

Zientzia eta kultura ... (1)

Etxebizitza duina? (1)

Jan-edan eta musikaz ... (1)

Gida komertziala

[Bilatu](#)

Iragarki merkeak

Merkataritza-lokala alokatzen da, kokapen bikainean (Elkano kalea, 33), Hernanin. Dendetarako, biltegietarako, etab. 100 m2, bi pisuetan banatuta. Egoera ona. 575 €.

Telefonoa: 678538248

LOGIKALINE enpresak bi lanpostu eskaintzen ditu, zuntz optikoa Gipuzkoako pyme-tan komertzializatzeko. Kontratu indefinidoa, formazio sendoa eta lantalde egonkorra. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com helbidera.

Telefonoa: .

[+ Ikusi](#)

Tweets por [@KronikaNet](#)

Gaur



10°

Bihar



12°

Etzi



12°

7°

5°

5°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Kaldereroak 2017



Ura atera da Urumea ba...



Astigarragako Txotx Ir...



Wukroren aldeko IV. Sa...




Gabonak 2016



Oroimena berreskuratuz

Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016



Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA

URUMEAKO
kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus



LAGUNTZAILEAK



**DOBERA
KRONIKA
BAZKIDEAK**

Legezko oharra